



Idatzi honi erantsita bidaltzen dizuegu “Gipuzkoan eskulangintza sektorea sustatzeko plana” 2020 laguntza programaren barruan egin zenuten laguntza eskaerari buruzko ebazpena

1.- 11. oinarria. Pertsona eta entitate onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.

11.1. Pertsona eta entitate onuradunek dirulaguntzak onartzeak martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutako Erregelamenduak eta dirulaguntzen alorreko gainerako araudi aplikagarriak ezarritako betebeharrak betetzea dakar, baita oinarri arautzaile hauetan ezartzen direnak ere.

11.2. Diruz lagundutako proiektuaren inguruan argitaratzen diren materialetan eta egiten diren komunikazio eta hedapen jardueretan, Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatu behar dute, euskararen erabilera normalizatzeko plana (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 149 zk. 2018ko abuztuaren 3koa) Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jarduera esparruan 2018-2022 aldirako onartzen duen 2018ko ekainaren 26ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiak xedatutakoaren arabera..

11.3. Generoaren ikuspegia txertatu beharko dute diruz lagundutako proiektuaren diseinuan eta garapenean.

11.4. Hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatu beharko dute diruz lagundutako proiektuaren komunikazio eta argitarapen guztietan..

11.5. Dirulaguntzaren xede diren jardueri eta proiektuei Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak ematen dien sustapenari eta finantzaketari publizitate egokia eman beharko die. Hori horrela, erakunde irudia jarri beharko dute, Gipuzkoako Foru Aldundiaren irudi korporatiboaren inguruko arauen arabera eta «Gipuzkoako Artisauak» logotipoa; eta finantzaketa publikoaren aipamena egin beharko dute kartel, idatzizko testu, bitarteko elektronikoko eta ikus-entzunezko eta abarretan, eta komunikabideetan egiten diren aipamen guztietan.

GARRANTSITSUA

Euskarri idatzietarako, irratirako edo telebistarako iragarkia prestatu ondoren, hura argitaratu eta hedatu aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko Zerbitzura igorriko da, egiaztatu dezaten ea egokia den eta irudi korporatiboaren inguruan Aldundiak duen Arandia betetzen duen

11.6. Dirulaguntza eman zenetik bost urteko epean, Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo helbide soziala, fiskala edo produkzio zentroetako zati nabarmen bat beste toki batera eramanez gero, dirulaguntza itzuli beharko da eta 16. oinarrian ezarritakoa aplikatuko da.

2.-13. oinarria. Diru laguntzen ordainketa.

13.1. Ordainketa dirulaguntza jaso duen jarduerak gauzatzeko justifikazioa aurkeztu eta gero egingo da.

Hala ere, jardueraren sektorearen eta entitate onuradunen ezaugarriak (irabazi asmorik gabeko elkarteak eta autoenplegurako enpresa-proiektuak) aintzat harturik, aurretiazko ordainketak egin ahal izango dira dirulaguntza jaso duten jarduerak gauzatzeko ezinbesteko finantzaketa gisa laguntzaren aurrerakinak proiektuari ekiten zaizkionean eta hasiera hori behar bezala egiaztatuta dagoenean ordaindu ahal izango dira, betiere, baliabide nahikoa bada eta dirulaguntza osoaren % 60 gainditzen ez bada.



Gainerakoa, laguntzaren xede diren jarduerak bukatzen direnean. Aurrez, dena den, 14.3 oinarrian zehaztutako dokumentazioa jasotzen duen kontu justifikagarria aurkeztu beharko da.

13.2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 32. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, ezin izango da inolako ordainketarik egin erakunde onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen ez dituen bitartean. Hori dela eta, ordaindu baino lehen, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Departamentuak egiaztatuko du eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik; hori posible izango ez balitz, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dagozkion dokumentazioa aurkeztea.

GARRANTSITSUA

Diruz lagundutako proiektuaren garapenean, 2020. urtean egiten ez den gastua ordaintzeko eskubidea, ez da 2021 ekitaldian txertatuko. Beraz, 2020. urtean egiten ez den gastuaren zenbatekoaren kobrantza galdu egingo da, dagozkion kontu silaren kargu.

3.-14. oinarria. Diruz lagun daitezkeen gastuak eta dirulaguntzaren justifikazioa.

14.1. Entitate onuradunek diruz lagundutako jarduera gauzatu izana frogatu beharko dute, baita jarduera horrek sortutako gastuak ere.

14.2. Dirulaguntzaren xedeko proiektua edo jarduera hilabeteko epearen barruan zuritu behar da, eta epe hori diruz lagundutako proiektu edo jarduera hori gauzatzeko epea, urteko deialdian ezarriko dena, amaitzen denetik kontatuko da.

14.3. Diruz lagundutako proiektua edo jarduera amaitutakoan, pertsona edo entitate onuradunek kontu zurigarri bat aurkeztu beharko dute, honako agiri hauek erantsita:

a) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete izana zuritzen duen jarduera memoria.

Eskulangintzako azokak eta lehiaketak antolatzen direnean: eskaera egin dutenen artean onartutako eta baztertutako eskulangintzako pertsonen eta enpresen zerrenda arrazoitua; hautaketa prozesua eta azoka azaltzen duen memoria (jardueren eta burututako lantegien deskripzioa, horiek hedatzeko eta komunikatzeko xedez euskarri batzuetan eta besteetan burututako ekintzak justifikatzen dituzten agiriak).

b) Memoria ekonomikoa, jardueren kostua frogatuko duena eta eduki hau izango duena:

— Jardueraren gastu eta inbertsioak sailkatzen dituen zerrenda, hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, horren jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data bilduko dituen. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, desbiderapenak ere adieraziko dira.

— Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga baliokide diren edo administrazioan eragina duten dokumentuak (orijinalak edo fotokopia konpultsatua) aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan gehitu direnak, alegia, eta beharko balitz, ordainduaren edo dudarik gabe konprometitu denaren dokumentazioa.

— Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko erabili diren bestelako sarrera edo dirulaguntzen xehetasunezko zerrenda, baita horien zenbatekoak eta jatorriak ere.



— Entitate onuradunek ekipo ondasunen hornikuntzetan edo aholkularitza nahiz laguntza teknikoko enpresen zerbitzuetan 15.000 euro edo hortik gorako gastu subentzionagarriak egin badituzte, eskatutako hiru eskaintzen artean egindako hautaketa egiaztatzen duen agiria, non eta laguntzaren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahikoa enpresa edo profesional ez dagoenean edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin ez den.

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak egiaztatuko du eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik; hori posible izango ez balitz, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dagokion dokumentazioa aurkeztea.

14.4. Dirulaguntza justifikatzeko ezarritako epea amaitzean oinarri honetako 3. atalean ezarritako agiriak aurkeztu ez badira, organo eskudunak onuradunari 15 eguneko epean agiri horiek aurkezteko eskatu ahalko dio. Epe hori amaitzean ez baditu aurkeztu onuradunak, 16. oinarrian ezarritako ondorioak gertatuko dira.

14.5. Pertsona eta entitate onuradunek 4 urtez gorde beharko dituzte dirulaguntzaren oinarrian dagoen jarduera bete izana eta horretarako jasotako dirubideen aplikazioa egiaztatzen dituzten agiriak. Epe hori kontatzen hasiko da aipatu agiriak aurkezteko ezarrita dagoen denbora amaitzen denetik aurrera.

14.6. Oinarri honetako 3. atalean aipatutako agiriak aurkeztu ostean, espedientea bideratzen duen organoak dagokion egiaztapena egingo du.

Egiaztapen horretatik ondorioztatzen badu diruz lagundu zitekeen gastua emandako dirulaguntza baino txikiagoa izan dela, dirulaguntza birdoitu egingo du. Dirulaguntza justifikatzeko ezarritako eskakizunak edo dirulaguntzaren xedea erabat edo neurri batean hautsiz gero, erakunde eskatzaileari jakinarazi egingo zaio, egindako egiaztapenaren emaitzekin batera, eta dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdu duela adierazteko prozedura hasiko da, edo, behar izanez gero, 16. oinarrian ezarritakoaren arabera, ordaindutako zenbateko osoa edo zati bat itzultzeko prozedura.

14.7. Kostuak egiaztatzeko, jatorrizko agirien kopia elektronikoko, informatiko edo telematikoa aurkeztuko da, betiere agiri horiek egiazkoak direla, osorik daudela eta gorde daitezkeela bermatzen bada.

4.-15. oinarria. Ebazpena aldatzea.

15.1. Diruz lagundutako jarduera burutzeko ezarri den epea amaitu baino lehen, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea eska dezake onuradunak, ezarritako epea luzatzeko, emandako zenbatekoa murrizteko, diruz lagundutako aurrekontu sailak alda tzeko edota jarduera osatzen duten ekintzak alda tzeko. Aldaketa horiek onar daitezke beren arrazoia ustekabeko zirkunstantzietan oinarritzen denean edota jarduera burutzeko premiazkoztat jotzen direnean, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta besteren batzuk kaltetzen ez badira

5.-16. oinarria. Ez-betetzeak eta itzulketak.

16.1. Oinarri hauetan, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan eta gainerako araudi aplikagarrietan ezarritako edozein eskakizun edo betebeharrak ez badu betetzen, pertsona ala entitate onuradunak diru laguntza jasotzeko eskubidea osorik edo zati batean galdu duela deklaratu da, eta jasotako dirua osorik edo zati batean itzuli beharko du, dagozkion berandutza interesekin batera, aipatu Foru Arauak 35. artikuluan xedatutakoaren arabera; halaber, aipatu foru arauaren 49. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoari jarraituz, hortik erator daitezkeen erantzu-



kizunak eskatuko zaizkio.

16.2. Ez-betetzeak mailakatzeko propor-tzionaltasun irizpideak erabiliko dira, eta organo instruktoreak balioetsiko ditu, proiektu osoarekiko eta jasotako zenbatekoekiko egindako lanak kontuan hartuta.

16.3. Proiektuaren bideragarritasunagatik edo izaeragatik, edo behar bezala zuritutako bestelako arrazoiengatik ezingo balitz lana bukatu edo aurrera jarraitzea komeniko ez balitz, diru laguntza bukatutzat eman eta eten ahal izango da, bi aldeen artean adostuta.

16.4. Borondatezko itzulketatzat jotzen da pertsona edo entitate onuradunak diru laguntza ematen duen organoak eskatu gabe egiten duena.

Itzultzeko prozedura hasteko, idatzi bat bidali behar dio Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo foru diputatuari, eta bertan, datu hauek sartu behar ditu, nolana ere:

- Entitatearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- Ordezkararen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- Borondatezko itzul-keta egiteko arrazoiaren azalpena.
- Tokia eta data.
- Sinadura.

Idatzi horrekin batera, agiri bat aurkeztu behar du egiaztatzeko itzulketa egin dela deialdiak zehaztutako finantzaerakundearen kontu zenbakian.

Borondatezko itzulketa gertatzen denean, dagozkion berandutza interesak kalkulatuko ditu diru lagun-tza ematen duen organoak.

6.-Jarduerak hasteko data.

Diruz lagundutako jarduerak 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko dira.

7. Proiektuak bukatzeko data.

Onuradunek **2021eko otsailaren 26rako** amaituta izan behar dituzte diruz lagundutako proiektuak.

INFORMAZIO GEHIAGO

Gipuzkoako eskulangintza sektorea sustatzeko programaren oinarri arutzaileak eta 2020ko deialdia. **(G.A.O. 2020ko ekainak 18, 114 zk.)**.